

## ANTZERKIA

### [A la deriva](#)

**Ostirala / 19.00etan**

"A la deriva": Juanan Caseroren antzezlan, Juanan Oyarzunek zuzendua.  
Errefuxiatak.

## BISITAK ETA IBILALDIAK

### [Klaustroko lanak bisitatzea](#)

#### **Iruñeko katedrala**

Hiru ordu hauetan egiten dira bisitak: 10:00, 11:00 eta 12:00etan; ordubeteko iraupena dute bisitek, gutxi gorabehera, eta mugikortasun-arazorik ez duten 14 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago.

Lanean ari dira bisita egiten den bitartean, eta, horregatik, 15 pertsona gehienez hartuko ditu txanda bakoitzak. 14 urtetik gorakoak izan beharko dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan, obra-aldamio batera igo beharko baitute. Oinetako erosoak eramatea gomendatzen da, takoirik gabe betiere.

Martxoaren 18an eta apirilaren 15 eta 29an, euskaraz izango dira bisitak.

Iruñeko katedraleko klaustro gotikoa zaharberritzeko lanak bidearen erdira hurbiltzen ari dira, ia urte eta erdia baitaramate lanean jarraian.

Fase berri bat hasiko da orain, multzoko hego-ekialdeko angelua zaharberrituko duena, konplexu eta zailenetako bat. Sánchez de Asiáinen hilobia (2012an zaharberritu zen), "Ate Ederra" deitzen dena eta Gagesko kondearen hilobia daude han, besteak beste. 11 hilabete inguruko iraupena du proiektuak.

### [Bisitak "Danok Taldea. 1966-1967" erakusketara.](#)

#### **Nafarroako Museoa**

Bisita gidatuak "Danok Taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik, gaztelaniaz zein euskaraz, egunero, 12:30ean, ondoko egutegiaren arabera:

Martxoak 25, gaztelaniaz

Apirilak 1, gaztelaniaz

Apirilak 8, euskaraz

Apirilak 15, gaztelaniaz

Apirilak 22, gaztelaniaz

Apirilak 29, euskaraz

Maiatzak 6, gaztelaniaz

Maiatzak 13, gaztelaniaz

Maiatzak 20, euskaraz

Maiatzak 27, gaztelaniaz

Erakusketari buruzko informazio gehiago.

## ERAKUSKETAK

### ["Danok Taldea. 1966-1967"](#)

**2018/03/10 - 2018/05/27**

Nafarroako Museoak “Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea” erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanez osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.<sup>a</sup> Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egina), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

### **“Ikusgai egiten duen gaua”**

**2018/03/24 - 2018/04/29**

Rachel Labastie y Nicolás Delpratek Egulbatin garatutako egoitzaren amaierako erakusketa. Egoitza hau Euskadi, Akitania, Nafarroa euroeskualdearen baitan sortutako mugazgandiko elkarlanaren fruitua izan da.

### **“Meatzariak gerran”**

**Museo del Carlismo**

**2017/11/30 - 2018/04/15**

Gaztela eta Leóngo Siderurgia eta Meatzaritza Museoaren ekoizpena da, eta egokitu eta eduki berriak gehitu dira espazio honetan muntatzeko. Doanekoa da, 2018ko apirilaren 15era arte.

Erakusketak Karlistaldien eta Espainiako Gerra Zibilaren arteko aldi erabilitako meatze-teknikak eta trintxerak egitekoak erakusten ditu, Lehen Mundu Gerrarenak nabarmenduta.

## **HAURRENTZAKO AISIA**

### **Ongi etorri ipuinetara**

**Nafarroako Liburutegia**

**Asteazkena / 18.00etan**

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia

Saioa ingelesez

Sarrera: librea, aretoa bete arte.

Jarduera boluntarioekin egiten da.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

## **KONFERENTZIAK**

### **Nadia Ghulemen**

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**

**Astelehena / 19.00etan**

Nadia Ghulemen hitzaldia: Emakumeek Afganistanen duten egoerari buruz.

Errefuxiatuak

### **El secreto de mi turbante**

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**

**Asteartea / 19.00etan**

"El secreto de mi turbante" lanari buruzko irakurle klubaren saio irekia.  
Irakurketa taldearen saioan parte hartzeko, "El secreto de mi turbante" liburua maileguan har dezakezu Bakerako Lankidetzeta Batzarrearen egoitzan : Aita Calatayud II, 5. bulegoa, 31003 Pamplona / Iruñea. 948 27 81 88. navarra@acpp.com.

### **Danok Taldea. 1966-1967**

#### **Nafarroako Museoaa**

#### **Asteazkena / 19.00etan**

Mahai-ingurua artista eta ikertzaileen parte-hartzearekin. Javier Balda erakusketako komisarioak moderatua.

Danok Taldea. 1966-1967

### **Meatze gorra historian barna**

#### **Karlismoaren Museoa**

#### **Ostirala / 19.00etan**

Meatzariak gerran aldi baterako erakusketaren kariatara, Karlismoaren Museoa mahai-inguru bat antolatu du martxoaren 23rako. Ondokoek hartuko dute parte:

Francisco Fernández García (erakusketako komisarioa)

Meatze gerra historian barna

Iban Roldán Bergaraetxea (Historiako lizentziaduna):

Lubaki "karlista": berri eta hil

Jarduera 19:00etan hasiko da Karlismoaren Museoa (La Rúa, 27-29, Lizarra).

Jarduera guztiak doakoak dira eta edonor etor daiteke (leku guztiak bete arte).

## **KONTZERTUAK**

### **Nafarroako Orkestra Sinfonikoa**

#### **Baluarte (Areto Nagusia)**

#### **Osteguna, ostirala / 20.00etan**

X. Abonu Kontzertua

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Zuzendaria: Josep Caballé Domenech

Bakarlaria: Mario Prisuelos, pianoa

## **TAILERRAK**

### **Moldeen eta erreproduzkioren lantegia**

#### **Huarte Zentroa**

#### **lunes, jueves / 17.00etan**

Moldeak sortzeko harremanetan dauden teknikak garatzeko, ezinbestekoa da eskuekin lan egiteko trebetasuna, trebetasun espazialak eta kognitiboak izatea.

Nafarroako edozein etapetako irakasleei zuzendutako ikastaro honetan, errealitatea behatzea, zatitzea, irudikatzea, erreproduzitzea, eraldatzea... nahi da. Moldeak sortzeko tekniken bidez, berez ikasteko estrategiak direnak ikasiko dira.

Saioek izaera praktikoa izango dute.

Lantegi honetan, moldeak husteko teknika desberdinak jarriko dira praktikan.

### **Habitación: Siete - Zazpi**

**Ostirala, 17:00 / Larunbata, igandea, 11:00**

**Huarte Zentroa**

Jabier Villarreal / Maite Velaz / Txo!?! / Ione Atenea / Itziar Markiegi / Estitxu Otermin / Taxio Ardanaz.

Habitación: Siete-Zazpi, 2017an Nafarroako Gobernuak eta Uharte Zentroak sustatutako Arte plastikoen eta ikusikoen produkzioarako laguntzak jaso zituzten proiektu hautatuei zuzendua dago. Bertan parte hartuko duten artistak: Jabier Villarreal, Maite Velaz, Txo!?! , Ione Atenea, Itziar Markiegi, Estitxu Otermin eta Taxio Ardanaz izango dira.

### **Jabetza intelektualaren eskubideei buruzko aholkularitza**

#### **Huarte Arte Garaikideko Zentroa**

##### **steguna / 17.00etan**

Egile-eskubideei eta bestelako ukiezinei buruzko aholkularitza juridikoa, Intangia elkartearen lankidetzan. Hilean behin eskaintzen da zerbitzua, ostegunarekin, 17:00etatik 20:00etara, Huarte Zentroan.

Gainerako ostegunetan, aldiz, on-line eskaintzen da.

Edonola ere, hitzordua eskatu behar da aldez aurretik: info@intangia.es helbidean edo 948 32139 telefonoan.

### **Tresna teknologikoak erabiliz proiektu artistikoak egiteko lantegia**

#### **Huarte Zentroa**

##### **Ostirala / 15.30etan**

Martxoa eta maiatza artean 8 ostiraletan Tresna teknologikoen bidez proiektu artistikoak aratzeko, artista eta ingeniariaren arteko elkarlanean eta ikerketan oinarritutako lantegia. MedialLab-Pradon garatutako elkarlanerako “Interactivos?” prototipatuan medialab-prado.es/interactivos, oinarritua dago bertako testuingurura eta baliabideetara egokitua baina teknologia eta sorkuntza prozesuen elkarlanerako izaera mantenduz.

## **ZINEMA**

### **“Morroia”**

#### **Nafarroako Fimloteka**

##### **Asteazkena / 20.00etan**

Filma Paul Zacharia idazle malaysieraren eleberri Bhaskara Pattellarum Ente Jeevithavum cinema adaptazioa da. Patela Shekhara Gowda, ezizenez Shiradi Shekhara, egiazko pertsonaian oinarritzen da filma. Zachariasek, Shiradi Mangalore herrian, Karnatakan, ezagutu zuen honen istorioa. Vidheyanek giza esklabutzaren eta erabateko boterearen inguruko perspektiba ikaragarria aurkezten du. Infernuaren irudikapena da, kristau bekataria ahul eta damutu baten begietan. Zuzendaritza eta gidioa: Adoor Gopalakrishnan.

### **“Izpi berdea”**

#### **Nafarroako Fimloteka**

##### **Osteguna / 20.00etan**

Filma Delphineren uda oporrekin batera hasten da. Delphine bere mutilarekin harremana bukatu berri du eta planik gabe ikusten du bere burua Paris bakarti batean. Beste lagun batek festa batera gonbidatuko du Delphine, hondartzara asteburu pasa, baina taldeko ezkongai bakarra dela ikusita Parisera bueltatuko da. Uda bere familiarekin Irlandan pasatzeko presioa jasan beharko du. Alpeetara bidaiatuko du

bakarrik, baina laister etorriko da berriro Parisera. Gelditu gabe bidaiatzea da filmaren gai nagusia.

Zuzendaritza: Éric Rohmer.

### **“Arratsalde bat” / “Artistaren azken urteak: Afterimage”**

#### **Nafarroako Filtoteka**

#### **Ostirala / 20.00etan**

"Arratsalde bat" (Popołudnie, Polonia, 2012)

Zuzendaritza: Izabela Plucińska.

Elkarrekin bizi diren gizon eta emakume batek ez dute ia elkarren arteko harremanik. Zoritxarreko istripu batek haien bizitzak elkartuko ditu. Zenbat iraungo du momentu eder honek?

“Artistaren azken urteak: Afterimage” (Powidoki, Polonia, 2016)

Zuzendaritza: Andrzej Wajda

Wajdaren azkeneko lanak norberaren askatasunaren garrantzia azpimarratzen du eta beste artista batenganako omenaldia da.